

---

# KIMUAK.

# 2023.



EUSKADIKO  
FILM  
LABURRAK

SELECCIÓN DE  
CORTOMETRAJES  
VASCOS

SELECTION OF  
BASQUE  
SHORT FILMS

BASQUE.  
AUDIOVISUAL.

EUSKADI  
BASQUE COUNTRY

---



<b>01. Euskara</b>	<b>02</b>
<b>02. Español</b>	<b>05</b>
<b>03. Formularioa   Formulario</b>	<b>07</b>

---

# KIMUAK 2023

## Deialdiaren oinarriak

Idatzi honen bidez, Eusko Jaurlaritzak Etxepare Euskal Institutuaren bitartez antolatu eta Zineuskadi elkarteak kudeatutako KIMUAK programaren 2023ko edizioan parte hartzeko deialdia zabaltzen da. Programa honek, Euskadiko Filmategiaren laguntza du zabalkunderako.

### KIMUAK

Programa honen helburua, euskal film laburrak nazioartean sustatu eta banatzea da. Prozesu honetan hautatuak suertatzen diren film laburrak KIMUAK deiturapean jasoko dira.

Programak berak hartuko du bere gain, hamabi hilabetez, aukeraketa izen-emate tasarik gabeko zinemaldietan inskribatzea (baita KIMUAKek tasa ordainketa salbuetsita duen zenbait deialditan) eta estatuko zein nazioarteko azokatan promozionatzea.

### ESKATZAILEAK

Film laburraren egileek baldintza hauetako bat bete beharko dute:

- Zuzendaria Euskal Autonomia Erkidegoan EAE) erroldatuta egotea gutxienez deialdia argitara eman baino urtebete lehenagotik.  
EAEn jaioa izanik, gutxienez 5 urtez jarraian bertan bizitakoa izan behar du, edo jarraian izan ezean, bertan bizitako garaian baturak gutxienez 10 urtekoa izan behar du.
- Ekoizpen-etxeak EAEn izatea egoitza.  
Bi enpresen edo gehiagoren arteko koprodukzioa bada, ekoizleak gehiengoa duen bazkidea dela frogatzen duen agiria aurkeztu beharko du.
- Nafarroako Foru Komunitateko edo Euskal Hirigune Elkargoko egile edo enpresek aurkeztutako euskarazko ekoizpenak izatea.  
Bi enpresen edo gehiagoren arteko koprodukzioa bada, ekoizleak gehiengoa duen bazkidea dela frogatzen duen agiria aurkeztu beharko du.

### FILM LABURREN BETEKIZUNAK

- Film laburraren ekoizpen data 2022ko ekainaren 1etik aurrerakoa izan behar da.
- Iraupenak 30 minututik beherakoa izan behar du.

- Film laburrak edozein hizkuntzatan egindakoak edo elkarrizketarik gabekoak izan daitezke.
- Nafarroako Foru Komunitateko edo Euskal Hirigune Elkargoko egile edo enpresek aurkeztutako ekoizpenak euskarazkoak izan behar dira.
- Lanak edozein formatutan filmatuak egon daitezke eta originalak izan behar dira. Eskubideen titularren aldetiko erreklamazio posibleen aurrean, izen-ematea egin duten pertsona fisiko edo juridikoak izango dira erantzule bakarrak.
- Gaia eta generoa askeak dira, baina ez dira onartuko bideoklipak, fashion filmak, izaera publizitarioa duten lanak, telesailtako kapituluak edo telebistako erreportajeak. Eduki arrazista edota sexista duten ekoizpenak, zein hirugarren baten eskubideak urratzen dituztenak edo animalienaganako tratu txarrak edo kalteak eragin dituztenak ere ez dira onartuko. Materiala inskribatzen duen pertsona izango da edukiaren legezko arduraduna.
- Egile bakoitzak nahi beste film labur aurkeztu ditzake.
- Film laburrek komertzialki estreinatu gabeak izan behar dute. Zinemaldi baten kontestuan plataforma publikoren baten bitartez hedatuak izan diren lanen onarpena ebaluatuko da.
- Film laburrak KIMUAKen eskuduntzen eremuko 25 zinemalditara gehienez aurkeztu izatea onartuko da. KIMUAKen eskuduntzetatik, eta beraz mugatze honetatik kanpo geratzen dira izena emateko tasak ezartzen dituzten jaialdiak.
- Postprodukzioa amaitu gabe duten film laburrak aurkeztea posible da, baldin eta muntaketa behin betikoa bada.

### AURKEZTU BEHARREKO MATERIALA ETA AGIRIAK

Deialdian parte hartu ahal izateko, nahitaezkoa da honako materiala eta agiria aurkeztea:

- KIMUAK 2023 aukeraketa sartzeko eskaera-orka, behar bezala beteta.
- Film laburra ikusteko esteka pribatu bat. Elkarrizketak dituzten film laburrek ingelesezko azpitoluak izan beharko dituzte nahitaez.
- Zerga-betebeharrak egunean daudela ziurtatzen duen Ogasuneko egiaztagiria.
- Bizilekua EAEn, Nafarroako Foru Komunitatean edo Euskal Hirigune Elkargoan izatearen ziurtagiria (errola agiria).
- Film laburraren fotograma bat.
- Film laburra zinemaldiren batera aurkeztu bada, izen-emateen, aukeraketa eta sarien zerranda osoa.

- Film laburra koprodukzio bat bada, filma aurkezten duen ekoiztetxea gehiengoa duen bazkidea dela ziurtatzen duen adierazpen sinatua.

## AURKEZTEKO MODUAK ETA EPEA

Film laburrak aurkezteko epea 2023ko maiatzaren 8ko 23:59etan amaituko da. Epez kanpo jasotako eskaerak ez dira onartuko.

Maiatzaren 15era arte, aurkeztutako materialaren zuzenketa epea irekiko da. Aurkeztutako proposamenak eskatutako betekizunak biltzen ez baditu edo nahitaezko dokumentazioa falta bada, dagokionari eskatuko zaio beharrezko zuzenketak egitea.

Eskaera-orria, eskatutako agiriak eta film laburra [kimuak@filmoteka.eus](mailto:kimuak@filmoteka.eus) helbidera bidali beharko dira, deskargatzeko aukera aktibatuta duen Vimeo-ko esteka pribatu bat gehituz.

Film laburren ekoizpenaren erregistro bat egiteko eta euskal ikus-entzunezko ondarea gordetzeko helburuz, hautagaitzak Euskadiko Filmategian erregistratu beharko dira. Amaitutako film laburra erakundeak zehaztutako formatu eta epean bidaliko da. Kontaktua: Ion López, [ion@filmoteka.eus](mailto:ion@filmoteka.eus).

## HAUTAKETA

Aurkeztutako lanak aztertu eta epaitzeko, zinema eta ikus-entzunezkoen munduko bost profesional eta adituez osatutako hautespen batzorde independente bat eratuko da, genero aldetik orekatua izango dena. Kide bakoitza gehienez bi urtez jarraian deitua izango da.

Katalogoa gehienez zazpi film laburrez osatua egongo da. Baloraziorako adierazleak eta horien gehieneko puntuazioa honako hauek dira:

- Film laburraren interesa, gidoiaren kalitatea eta maila teknikoa eta artistikoa: 45 puntu
- Proposamenaren arriskua, planteamenduaren originaltasuna eta hizkuntza zinematografikoa berritzeko gaitasuna: 30 puntu
- Nazioarteko potentziala: 25 puntu

Hautaketa osatzen duen obra orok gutxienez 70 puntu lortu beharko ditu.

Epaimahaiaren erabakiak, katalogoan genero eta hizkuntza aniztasuna zaintze aldera, honakoa bermatuko du:

- Hautatutako film laburren %30a, gutxienez, emakumezkoek zuzenduak izatea.
- Hautatutako film laburren %30a, gutxienez, euskaraz izatea.

Azken hautaketak, produktoreen aniztasun-irizpideei ere erantzungo die, ekoizpen-etxe edo ikastetxe beraren izenean egindako gehienez bi proposamenetara mugatuz.

Deliberazio data deialdia ixtean argitaratuko da eta hautaketa-  
ren emaitzak epaiaren hurrengo egunean emango dira jakitera.

## HAUTATUTAKO FILM LABURREN KONPROMISOAK

Film laburraren banaketa-prozesuari berehala ekiteko, hautatutako egileek konpromisoa hartzen dute dagokion materiala KIMUAKek ezarritako epeetan entregatzeko: filmaren ikus-entzunezko materiala, gidoiaren erregistroa, elkarrizketa-zerrenda, material grafikoa (fotogramak, posterra...), zuzendariaren gaineko informazioa (biografia, NAN agiria), etab.

Prozesua eta azken emaitza bateratze aldera, KIMUAK arduratuko da hautatutako filmaren itzulpenen eta azpitoluen kudeaketaz. Itzulpenen kostuak KIMUAKek hartuko ditu bere gain.

Film labur bat jaialdi batean hautatzen bada, film laburraren ekoizlea edo zuzendaria arduratuko da zinemaldi horretara proiektzioaren kopia edo antolakuntzak eskatutako edozein material bidaltzeaz.

KIMUAKek ez du irabazi asmorik. Film laburren sustapenak eta banaketak sortutako diru-sarrerara guztiak egileentzat izango dira.

## AZKEN XEDAPENAK

Film labur bat KIMUAK 2023 egitasmoan hautatua izateak aipatutako katalogoan urtebetez eskusibotasunez jasoa izango dela esan nahi du, beraz, ezingo du film laburrak sustatzeko beste katalogo publiko batean parte hartu. Muga horrek ez du eraginik izango enpresa pribatuaren kasuan, baldin eta enpresa horiek KIMUAKi dagozkion esparruetan jarduten ez badute (film laburrak zinema-jaialdietan eta gainerako esparruetan zabaltzea).

Hautatutako film laburren arduradunek materialak entregatzeko KIMUAKek ezarritako epeak bete beharko dituzte. Arau-hauste larria gertatuz gero, KIMUAKek filma baztertzeko erabakia hartu dezake.

KIMUAKen logotipoa film labur bakoitzaren hasieran sartu beharko da.

Aukeratuta suertatzen diren film laburrek proiektzio eskubideak eman beharko dizkiote KIMUAKi, eskusibotasunik gabe, helburu promozionala, didaktikoa zein kulturala izan dezaketen irabazi asmorik gabeko emanaldietarako.

KIMUAKek beretzat hartzen du informazioa isilean gorde duten film labur oro baztertzeko eskubidea.

## OINARRIAK ONARTZEA

Film laburra deialdi honetara aurkezteak oinarri hauek automatikoki eta osoki onartzea dakar.

# KIMUAK 2023

## Bases de la convocatoria

Mediante la presente, se abre la convocatoria para participar en la edición 2023 del programa KIMUAK, organizado por Eusko Jauriaritza-Gobierno Vasco a través del Instituto Vasco Etxepare, y gestionado por la asociación Zineuskadi. KIMUAK cuenta con el apoyo de la Filmoteca Vasca para la difusión de los cortometrajes.

### KIMUAK

KIMUAK tiene como objeto promocionar y distribuir cortometrajes vascos a nivel internacional. Las obras seleccionadas en este proceso se recogerán bajo la denominación de KIMUAK, el cual se hará cargo de su distribución en festivales sin tasas de inscripción (también en convocatorias en las que KIMUAK cuenta con exención de tasas), así como de su promoción en mercados internacionales y nacionales por un periodo de doce meses.

### SOLICITANTES

Los autores del cortometraje deberán cumplir una de estas tres condiciones:

- La persona que dirija la obra debe estar empadronada en la Comunidad Autónoma Vasca (CAV) desde al menos un año antes de la fecha de publicación de la presente convocatoria o haber residido en ella de manera continuada durante al menos 5 años, o de forma discontinua durante al menos 10 años.
- La empresa productora debe estar radicada en la CAV. En caso de coproducciones entre varias empresas, la productora de la CAV debe acreditar ser la socia mayoritaria.
- Que se trate de producciones en euskera presentadas por autores o empresas de la Comunidad Foral de Navarra o de la Comunidad de aglomeración del País Vasco. Si se trata de una coproducción entre dos o más empresas, el productor deberá presentar un documento que acredite su condición de socio mayoritario.

### REQUISITOS DE LOS CORTOMETRAJES

- La fecha de producción debe ser posterior al 1 de junio de 2022.
- La duración total debe ser inferior a 30 minutos.
- El cortometraje puede estar realizado en cualquier idioma, o bien carecer de diálogos.

Aquellos cortometrajes presentados por autores o empresas de la Comunidad Foral de Navarra o de la Comunidad de aglomeración del País Vasco deberán estar realizados en euskera.

- La obra puede haber sido rodada en cualquier formato y debe ser original, siendo las personas físicas o jurídicas que la inscriben las únicas responsables ante cualquier posible reclamación de los titulares de derechos sobre la misma.
- El género y el tema son libres, pero no se aceptarán videoclips, fashion films, vídeos publicitarios, capítulos de series ni reportajes televisivos. Toda producción que tenga contenido racista, sexista o que atente contra cualquier derecho de un tercero o en la que animales hayan resultado dañados o maltratados, tampoco será admitida. La persona que inscriba el material será la responsable legal del contenido del mismo.
- La obra no debe haber sido estrenada comercialmente. Se evaluará la admisión de aquellas obras que hayan sido emitidas por una plataforma pública en el contexto de un festival.
- Solo se admitirán trabajos que hayan postulado a un máximo de 25 festivales del ámbito de competencia de KIMUAK. Quedan fuera de este ámbito de competencia, y por tanto de esta limitación, todos los festivales que apliquen tasas de inscripción.
- Pueden presentarse cortometrajes cuya posproducción no esté finalizada, siempre y cuando el montaje sea definitivo.

### DOCUMENTACIÓN Y MATERIAL A PRESENTAR

Para poder concurrir a la presente convocatoria, es necesario presentar el siguiente material y documentación:

- Solicitud de inscripción para la selección KIMUAK 2023, debidamente cumplimentada.
- Un enlace privado para visionar el cortometraje. Aquellas obras que contengan diálogos deberán estar necesariamente subtitradas en inglés.
- Un fotograma del cortometraje.
- Certificado de Hacienda de estar al corriente de pagos.
- Certificado de residencia (empadronamiento) en la CAV, Comunidad Foral de Navarra o Comunidad de aglomeración del País Vasco.
- En caso de ser una coproducción entre varias empresas, declaración firmada de que la productora solicitante es la socia mayoritaria.

- 
- En caso de haber presentado el cortometraje a algún festival, un listado completo de inscripciones, selecciones y premios.

## FORMA Y PLAZO DE PRESENTACIÓN

El plazo para inscribir obras en esta convocatoria finalizará el 8 de mayo de 2023 a las 23:59. No serán admitidas las solicitudes que se presenten fuera del plazo establecido.

Hasta el 15 de mayo se abrirá un período de subsanación del material presentado. Si la solicitud presentada no reúne los requisitos exigidos o no se acompaña de la documentación preceptiva, se requerirá al interesado que subsane y/o acompañe los documentos necesarios.

La solicitud de inscripción, los certificados requeridos y los cortometrajes deberán enviarse a la dirección de correo [kimuak@filmoteka.eus](mailto:kimuak@filmoteka.eus), añadiendo un enlace privado de Vimeo que tenga activada la opción de descarga.

A fin de elaborar un registro de la producción de cortometrajes y preservar el patrimonio audiovisual vasco, las candidaturas se deberán registrar en la Filmoteca Vasca. El cortometraje finalizado se enviará en el formato y plazo establecido por la entidad. Contacto: Ion López, [ion@filmoteka.eus](mailto:ion@filmoteka.eus).

## SELECCIÓN

Para el análisis y evaluación de las solicitudes presentadas, se constituirá una comisión de selección independiente compuesta por cinco profesionales y personas expertas del mundo del cine y del audiovisual, que será equilibrada en términos de género. Cada miembro podrá ser convocado durante un máximo de dos años consecutivos.

El catálogo estará compuesto por un máximo de siete cortometrajes. Los indicadores de valoración y su puntuación máxima son los siguientes:

- El interés del cortometraje, calidad del guion y su nivel técnico y artístico: 45 puntos
- Riesgo de la propuesta, originalidad del planteamiento y capacidad de innovación del lenguaje cinematográfico: 30 puntos
- Potencial internacional: 25 puntos

Toda obra que forme parte de la selección deberá obtener una puntuación mínima de 70 puntos.

Con el fin de preservar la diversidad de género y lingüística en el catálogo, el fallo del jurado garantizará lo siguiente:

- Al menos el 30% de los cortometrajes seleccionados estarán dirigidos por mujeres
- Al menos el 30% de los cortometrajes seleccionados estarán realizados en euskera.

La selección final atenderá a criterios de pluralidad de empresas productoras, limitando a un máximo de dos propuestas realizadas en nombre de una misma compañía o centro educativo.

La fecha de la deliberación se publicará al cierre de la convocatoria y los resultados de la selección se darán a conocer al día siguiente del fallo.

## COMPROMISOS DE LOS CORTOMETRAJES SELECCIONADOS

Para iniciar de forma inmediata el proceso de distribución del cortometraje, los autores seleccionados se comprometen a entregar el material correspondiente en los plazos establecidos por KIMUAK: material audiovisual, lista de diálogos, material gráfico (fotogramas, póster,...), información sobre el director (biografía, DNI), etc.

Con objeto de unificar el proceso y el resultado final, KIMUAK gestionará las traducciones y los subtítulos de los cortos seleccionados. Los costes de las traducciones serán asumidos por KIMUAK.

Si un cortometraje es seleccionado en un festival, la persona o empresa productora, o en su defecto la persona que lo ha dirigido, será responsable del envío de la copia de proyección o de cualquier material que solicite la organización.

KIMUAK no tiene ánimo de lucro. Todos los ingresos generados por la promoción y distribución de los cortometrajes en festivales irán destinados íntegramente a las personas responsables de la autoría.

## DISPOSICIONES FINALES

La selección de un cortometraje para el programa KIMUAK implica su presencia en exclusividad durante un año en dicho catálogo, no pudiendo por tanto estar presente en ningún otro catálogo público de difusión de cortometrajes. Esta limitación no afecta a los catálogos de empresas privadas, siempre y cuando éstas no operen en el mismo ámbito que KIMUAK (difusión de cortometrajes en festivales y ámbitos similares).

Las personas responsables de los cortometrajes seleccionados deberán respetar el calendario establecido por KIMUAK para la aportación de materiales. En caso de incumplimiento grave, KIMUAK podrá determinar la exclusión de la obra.

El logotipo de KIMUAK encabezará cada uno de los cortometrajes seleccionados.

Los cortometrajes seleccionados deberán ceder sus derechos de exhibición, sin exclusividad, a KIMUAK para su posible exhibición en programaciones con finalidad promocional, didáctica o cultural, sin ánimo de lucro.

KIMUAK se reserva el derecho de excluir aquellos cortometrajes que hayan omitido información.

## ACEPTACIÓN DE LAS BASES

La presentación de un corto a esta convocatoria supone la aceptación automática y completa de las presentes bases.

---

**KIMUAK 2023**Izen-emate formularioa | Formulario de inscripción

---

## LANAREN DATUAK | DATOS DE LA OBRA

<b>Izenburua   Título</b>	
<b>Iraupena   Duración</b> (mm:ss)	
<b>Generoa   Género</b>	
<b>Jatorrizko hizkuntza   Idioma original</b>	
<b>Sinopsia (gehienez 50 hitz)   Sinopsis (máximo 50 palabras)</b>	
<b>Aktoreak   Intérpretes</b>	

## FILM LABURRA IKUSTEKO ESTEKA | ENLACE DE VISIONADO DEL CORTOMETRAJE

<b>Helbidea   Dirección</b>	
<b>Pasahitza   Contraseña</b>	

---

---

**EGILEAREN DATUAK | DATOS DEL AUTOR**

<b>Izen-abizenak   Nombre y apellidos</b>	
<b>Biografia (gehienez 70 hitz)   Biografía (máximo 70 palabras)</b>	
<b>Filmografia   Filmografía</b>	
<b>Sare sozialak   RRSS</b>	

**LANA AURKEZTEN DUEN PERTSONA FISIKO EDO JURIDIKOAREN DATUAK  
| DATOS DE LA PERSONA FÍSICA O JURÍDICA QUE PRESENTA LA OBRA**

<b>Izena   Nombre</b>	
<b>Lanarekin duen harremana   Relación con la obra</b>	
<b>Helbidea   Dirección</b>	
<b>P.K.   C.P.</b>	
<b>Herria   Población</b>	
<b>Telefona   Teléfono</b>	
<b>Mugikorra   Móvil</b>	
<b>E-mail</b>	
<b>Web</b>	
<b>Sare sozialak   RRSS</b>	

---



---

**ESKAERA EGITEN DUEN PERTSONAK EDO ERAKUNDEAK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK**  
**| DOCUMENTACIÓN A APORTAR POR LA PERSONA O ENTIDAD SOLICITANTE**

A) Pertsona fisikoak | Personas físicas

NANaren fotokopia. | Fotocopia del DNI.

Egungo erroldatze-ziurtagiria edo adierazitako epeetan bizilekua EAEn eduki izanaren egiaztagiria.  
| Certificado de empadronamiento actual o acreditación de haber residido en la CAV en los plazos establecidos.

B) Pertsona juridikoak | Personas jurídicas

Pertsona juridikoaren lege-ordezkararen NANaren fotokopia.  
| Fotocopia del DNI del representante legal de la persona jurídica.

Zerga helbidea egiaztatzen duen Ogasunaren datuak egiaztatzeko agiria (DEA).  
| Documento acreditativo de datos (DAD) de la Hacienda Foral con el domicilio fiscal.

Hainbat enpresen arteko koprodukzioa bada, ekoizpen-etxe eskatzaileak gehiengo duela ziurtatzen duen adierazpen sinatua. | En caso de que se trate una coproducción entre varias empresas, declaración firmada de que la productora solicitante es la socia mayoritaria.

C) Bai pertsona fisikoak, bai juridikoak | Personas físicas y jurídicas

Zerga-betebeharrak egunean izatearen Ogasunaren ziurtagiria.  
| Certificado de Hacienda de estar al corriente de pagos.

Film laburraren fotograma bat JPG formatuan (300 ppp). | Un fotograma del cortometraje en JPG (300 ppp).

Film laburra zein jaialditara bidali den, zeintzuetan aukeratu duten eta zein sari jaso dituen adierazten duen zerrenda. | Listado de los festivales a los que el corto ha sido presentado, indicando las selecciones y los premios obtenidos.

**IZEN-EMATEAREN ONESPENA | CONFORMIDAD DE INSCRIPCIÓN**

En \_\_\_\_\_ (e)n, 2023ko \_\_\_\_\_ ren (e)(a)n.  
a de \_\_\_\_\_ de 2023.

---

---

## DATUEN BABESARI BURUZKO OINARRIZKO INFORMAZIOA

### | INFORMACIÓN BÁSICA SOBRE PROTECCIÓN DE DATOS

#### Zure datu pertsonalak erabiliko dira, eta tratamendu-jarduera honi erantsiko zaizkio:

Euskal ikus-entzunezkoaren nazioartekotzea.

#### Arduraduna:

Zineuskadi elkarte eta Etxepare Euskal Institutua.

#### Helburua:

Kimuak 2023 izendapenarekin aurkeztutako euskal film laburren nazioarteko sustapena eta banaketa.

#### Legitimazioa:

Tratamendua beharrezkoa da, interes publikoaren aldeko eginkizunen bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko jardunean.

#### Hartzaileak:

Gaiaren gaineko eskumena duten Administrazioak.

#### Eskubideak:

Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, baita datuen tratamendua mugatzeko edo tratamendu honi aurka egiteko eskubidea eta erabaki individual automatizatuen jomuga ez izateko eskubidea. Datuen gaineko ekintzaren bat egiteko, [info@zineuskadi.eu](mailto:info@zineuskadi.eu) helbidera bideratu beharko dira eskaerak.

#### Araudia:

Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.

#### Sus datos de carácter personal serán tratados e incorporados a la actividad de tratamiento denominada:

Internacionalización del audiovisual vasco.

#### Responsable:

Asociación Zineuskadi y Etxepare Euskal Institutua-Instituto Vasco Etxepare.

#### Finalidad:

Promoción y distribución de cortometrajes vascos presentados bajo la denominación Kimuak 2023.

#### Legitimación:

Tratamiento necesario para el cumplimiento de una misión realizada en interés público o en el ejercicio de poderes públicos conferidos al responsable del tratamiento.

#### Personas destinatarias:

Administraciones competentes en la materia.

#### Derechos:

Tiene derecho de acceso rectificación, supresión limitación y oposición de los datos, y así como de no ser objeto de decisiones individuales automatizadas. Para realizar alguna acción sobre los datos, las solicitudes deberán dirigirse a [info@zineuskadi.eu](mailto:info@zineuskadi.eu).

#### Normativa:

Reglamento General de Protección de Datos y Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales.

---